



Diru sarrerak

Gure produktua webgune bat denez, ez dugu kapital asko jarri beharko, sozietate mugatua izango delako. Akzionistek ordainduko dute hasierako kapitala. Adibidez, beste webguneetan gure webgunea ateratzea.

Enpresak bi modu ezberdinetan lortuko du dirua: publizitatearen bitartez eta zergen bitartez. Diru-iturri nagusia publizitatea izango da. Marka edo bestelako enpresa ezberdinek iragarkiak jartzeko aukera izango dute. Bestalde alokatzaileek haien produktua ikusgarriagoa izateko ordaintzeko aukera izango du, hau da, ordainduz gero bere produktua gomendioen atalean sartuko da eta hasierako planoan azalduko da kontsumitzaileentzat.

Halere, alokatzaileek zerga batzuk ordaindu beharko dituzte gure zerbitzua erabiltzeagatik, haiek jarritako prezioaren %20, adibidez. Zerga horiek ez ditu alokatzaileak zerbitzua erabiltzetik urrunduko, jendea prest baitago bere produktuak aseguruia izateagatik ordaintzea. Aseguruia eskaintzen dugun bakarrak gara eta besteekiko gailentzen gaitu. Bezeroaren ordainketa guk kobratuko dugu, gu enkargatuko gara alokatzaileak dagokion %80 kobratzen. Ordainketa hori PayPal bitartez egiteko aukera izango du, ordainketa ahalik eta seguruena izateko, banku-txartelaren zenbakia internetean gera ez dadin.